

PLATA IBAIRANTZ

Koldo Ordozgoiti Juanenea



Omega kafetera lantegiaren langile taldea. Mendiola jatetxean, 1940.

Ezin diet izena jarri argazkian azaltzen diren 15 gizasemeei, *Terry* pattar botila eskuetan argazkitik begiratzen digun neska gazteak, gure amak, ahaztuak baititu haien izen-deiturak. Datorren urtean 75 urte beteko dira argazkia egin zenetik. Ahazturak bataila irabazi aurretik, argazkia egin zenean 18 urte zituen gure Felik irudiko hainbat lagunena izena eta nondik norakoak esan zizkidan. Orduan nik ez nion kasu gehiegirik egin, orain damua.

Hamabost gizaseme horiek Omega kafetera fabrikarekin lotura dute. Irudia 1940. urtean hartu zen, afal ostean, eta litekeena da Figurski argazkilaria egin izatea. Afaria Biteri kaleko Mateo etxeko

Mendiola jatetxearen lehen solairuko jantokian egin zen eta argazkia gela hartan bertan egin da. Despedida bat zen. Argazkiko lagunetako bat –oso oker ez banaiz, gure amaren atzean eserita dena– Ameriketara zihoan, Plata ibaiko Argentinara.

Argazkiko gizon horrek Ameriketarako bidea hartu zuen atzerritik bueltatu berrian. Beste askok bezala –jattetxeko Mendiola familiak, esaterako– lagun horrek atzerriratzea pairatu zuen 1936 eta 1939 urte tartean. Gure amak argazkia egin zenean urte bete baino gutxiago zeraman herrian bizitzen, Berastegitik Errenteriara etorrira, Mendiola tabernan zerbitzari. 1939ko madalenetan hasi zen lanean. Ez zekien argazkiko lagun hori noiz



bueltatu zen Errenteriara, ezta haren historia ere. Duela urte batzuk, argazkia erakusten eta bertan azaltzen zirenen berri ematen zidanean, amak oso gogoan zuen argazkia egin eta gutxira, pasaportea eta irteteko baimena eman aurretik poliziak atxilotu egin zuela Plata ibairako bidea hartu behar zuen gizasemea, bere lehenagoko erbestaldia argi zezan. Arazoak nahiko azkar, eta berarentzat egoki, argitu ziren eta argazkiko gizonak Argentinako bidea hartu ahal izan zuen 1940. urte hartan.




Argitasun gutxi eman ditzaket, beraz, argazkiko lagun horiei buruz. Jakin badakit, amak horrela kontatuta, Omega kafetera etxearekin zerikusia zutela. Gauza gutxi. Aldiz, Argentinak bere lurretan

hartu zuen lagun horrek egindako ibilbidea kontatu dezaket eta ezin ukatu historia honek bere garrantzia duela. Munduan gerra zen, naziak Frantzia hartu berria zuten. Alemanak Hendaian ziren. Ipar Euskal Herria nazien esku eta Francoren faxismoak bere mende zuen Hego Euskal Herria eta Espainia. Alemaniaren eta ardatz nazi-faxistaren agindupean bizi zen Europa. Urte horretan, oraindik, Stalinen Sobiet Batasunak hitzarmena egin zuen Hitlerren Alemaniarekin, eta une hartan bakarrik Britainia Handiak segitzen zuen gerran. Eta gerra hori, neurri handi batean Atlantikoan borrokatzen zen.

Egoera eta garai horretan Ameriketara joan ahal izatea askok eta askok zuten esperantza eta nahia zen. Nahia eta ezina, denbora hartan Amerikako atak itxirik baitziren gehienentzat. Omega lantegiko gizonak ontziz egin zuen bidea. Litekeena Bilbon hartzea baporea, garai hartako transatlantikoak, paileboteak baporearen indarrez mugitzen ziren. Hamabost eguneko itsas bidea gerra gorrian zen Atlantikoa zeharkatuz egin ondoren, Buenos Aireseko Hotel de Inmigrantes-en egin zuen eskala ontziak. Argentinarako sarrera ate hartatik pasata sartu zen Platako herrian, eta hori euskal herritarra zelako egin izan ahal zuen. Euskal jatorriak Argentinarako sarbidea eman zion.

XX. mende hasieran, handia zen Argentinan bizi zen euskal gizataldea. Panpako hainbat herritan euskal jatorriko jendeak biztanleen gehiengoa osatzen zuen. *Tambero* izatea, esnezale ogibidea, euskaldunaren sinonimoa zen garai hartako Argentinan¹. Lehen karlistada amaitu ondoren hasi zen harantz aldeko euskal jende oldea eta euskal herritar haiek berezko izena irabazi zuten Platako ibaiaren bi aldeetan, Argentinan eta Uruguain. Argentinan *vasco* esaten zaio Ipar zein Hego Euskal Herriko etorkinei eta hauen ondorengoei, italiar jatorrikoiei [napoli]tano esaten zaien moduan edo eta *gallego* espainiarrei. Gizatalde horiek, frantsesekin, *rusoekin* (juduak) edo eta *turcoekin* (ekialde hurbiletik joandako emigranteekin, eta Europako beste pobreekin batera Argentina

1. "Gaur egun, bertako [Argentinako] esnearen industria eta esnekien salmenta euskaldunen esku da, ia osorik. Horrela, ziurtzat jo dezakegu nazio horretakoa izango dela auzoko esnezalea, Buenos Aireseko zapata garbitzaile bat napolitanoa [tanoa, italiarra] besterik izan ezin daitekeen moduan." KOEBEL H. W., *L'Argentine moderne*, Pierre Roger et cie edit, Paris 1909, Pierre Lhandek *La emigración vasca* liburuan egindako aipua.



populatu zuten. Zer edo zerengatik, eta beraien jatorri europarra azpimarratzeko, urguilu puntu batekin *los argentinos descien den de los barcos* diote oraindik argentinarrek.

Ez da harritzekoa, beraz, 1937an Euskadi frankisten esku erori ondoren, Agirre Lehendakariaren Eusko Jaurlaritzak lehentasunezkoa jotzea Argentinako euskal jatorriko kolonia beraien alde jartzen saiatzea. XIX. mende amaieratik Euskal Herriarekiko zaletasuna nabaria zen Argentinan, *La Baskonia* bezalako aldizkariak zabalpen handia zuten, Laurak Bat (Buenos Aireseko euskal etxeko bat) munduan sortutako lehenetakoa dugu eta Sabino Aranak eragindako abertzaletasuna ia garai berean piztu zen Plata ibaiak ukitutako lurretan. Baina 1936ko gerra hasi zenean euskal argentinarren artean askok, gehienek agian, matxinatu frankisten aldeko jarrera izan zuten. Eta horretan zer esan handia izan zuen Argentinako eliza katolikoak.

Argentinatik jatorri euskalduneko abertzaleek laguntza eskatu zioten Euskadiko Jaurlaritzari egoera horri buelta emateko. Erbestean, Bartzelonan eta Parisen kokatua zen Agirre Lehendakariaren Eusko Jaurlaritzarentzat Argentina, New Yorkekin batera, lehentasunezko helburu bilakatu ziren Ameriketara eragiteko. Horregatik, Agirre Lehendakariak Ramon Aldasoro, Jaurlaritzaren sailburu errepublikarrari agindu zion hara joateko, Ixaka Lopez Mendizabal, Santiago Cunchillos eta Pablo Archanco osatutako taldearen burutza hartuta.

Bi tolosarrek eta bi nafarrek osatua, oso delegazio sendoa zen. Ramon Aldasoro Galarza, tolosarra jaiotzez nahiz bere ibilbide politiko eta profesionala Bizkaian egin, esperientzia eta ibilbide politiko handiko gizona zen. Agirre Lehendakariaren Jaurlaritzan sailburua zen, Izquierda Republicana ordezkaturik. Euskadi frankisten esku geratu zenean, Izquierda Republicanak Aldasoro alderditi botatzen egin zuen, Agirre Lehendakariak sailburu gisa eutsi, Argentinarekin hartu-emanak zabalteko agindua eman eta Jaurlaritzaren ordezkari izendatu zuen. Ixaka Lopez Mendizabal dugu euskal ordezkari zako beste tolosarra. Euzko Alderdi Jeltzaleko burukidea, euskal pizkundearen eragilea, idazlea eta argitaldaria. Ixakak harreman zuzenak zituen XX. mende hasieratik Argentinarekin. Taldeko bi nafarrak maila handiko politiko eta profesionalak ziren. Santiago Cunchillos Manterola abokatu eta intelektual nafarra, EAJren zinegotzia izana zen

Iruñean. Pablo Archanco Zubiri, irakaslea eta ingeniaria, Eusko Abertzale Ekintza alderdiaren sortzailea izan zen eta Iruñeko lehen ikastolaren sortzailea dugu. Frankistek atxilotu egin zuten Iruñean gerra hasi berritan, baina Ipar Euskal Herrira ihes egitea lortu zuen.

Euskal ordezkariak 1938ko azaroaren 15ean pasa zuen Hotel de Inmigrantes-eko atea, Plata ibaiko Buenos Aireseko ipar moilan. Helburu zehatza zuten, Argentinan bizi ziren euskal jatorriko jendearen babes lortzea, zatiketa politikoa gainditu eta euskal argentinarren laguntzarekin erbesteko bidea jorratu beharko zuten euskaldunentzako Argentinako atea zabaltzeko ahal izatea. Gauzak zailak baino okerrago azaltzen ziren hasieran, Ramon Aldasorok Manuel Irujori idatzi zion moduan:

cuando llegamos a la Argentina nos encontramos con que lo único que estaba a nuestro servicio era Acción Nacionalista [pero, eran escasos] y estaban divorciados de las demás entidades vascas. (...) Casi todos los vascos de dinero no querían ni oír hablar de los “rojos-separatistas” y los que pudieran sernos afectos estaban con la República Española².

Ramon Aldasoro buru zuen delegazioak ezin izan zituen emaitza hobekak eman eta oso denbora gutxian, gainera. Lehen fruitua, *Euskal Herriaren alde - Liga de Amigos de los Vascos* elkartearen sorrera izan zen. Frantziara Eusko Jaurlaritzaren aterpea zen *Ligue Internationale des Amis des Basques* Argentinako adar gisa sortu zuten erakunde berria eta Sebastian Amorrortu, Sabino Aranaren editorea izandako euskal argentinarra, izan zuen lehen burua.

Ondoren, Liga de Amigos de los Vascos elkartearen babespean, euskal delegazioak *Euzko Deya-La Voz de los Vascos en América* aldizkaria sortu zuen. Lehen zenbakia 1939ko maiatzaren 19an kaleratu zen. Argentinako *Euzko Deyak* Parisen argitaratzen zen *Euzko Deya La Voz de Euzkadi. La Voix des Basques* Eusko Jaurlaritzaren bozemailea zen aldizkaria izan zuen eredu. Aldasorok,

2. Ramon Aldasorok Manuel Irujori 1939ko abuztuaren 16an idatzitako gutunean, Abertzaletasunaren Agiritegia, GE-119-4.

Cunchillosek, Archancok eta Lopez Mendizabalek sortu zuten aldizkariak, Ixaka izan zuen lehen zuzendaria,

López Mendizabal fue artifice en la planificación de cada número, pues sus compañeros mencionados sabían muy poco de ello y naturalmente confiaron en él al lanzar el decenario, que ha vivido hasta 1975³.



Argentinako euskal gizataldea sendotze aldera, 1939ko abuztuaren 30ean Jose Urbano de Aguirre jauna buru zuen Comité pro Inmigración Vasca elkarteak sortu zuten. Euskal jatorriko edo eta euskaldunen aldeko argentinarez osatua⁴. Hauek:

3. Nota necrológica de Ixaka López Mendizabal, Andres Irujok idatzia, Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos, 109 zb. 1977ko ekaina.
4. Talderaren eragileak hauek izan ziren, *Euzko Deyan* azal dutako moduan: José Urbano de Aguirre, Iván L. Ayerza, Adolfo Bioy (Sociedad Rural Argentina bazkuneko presidentea), Juan B. Ibarra, Juan Esperne (Club Vasco-francés euskal etxeko presidentea), Elpidio Lasarte (Laurak bat euskal

“A los vascos radicados en Argentina. A los argentinos de stirpe vasca y a todos los que simpatizan con los vascos” agiria argitaratu zuten eta honek *Euskalerraren alde Liga de Amigos de los Vascos*-en atxikimendua jaso zuen. Ramon Aldasoren hitzetan, *el Comité pro Inmigración Vasca, además de mantener vivo el sentimiento de solidaridad hacia nuestro pueblo, nos permite incorporar en nuestra acción a personalidades destacadas de stirpe vasca que, de otra manera y por los resentimientos causados por la guerra civil española, no hubiesen estado dispuestos a mantener contactos con nosotros⁵.*

Euskal herritarren emigrazioaren aldeko ideia Diego Joaquin Ibarbia jaunarena izan zen. Buenos Aires probintziako Instituto de Colonización agentziako idazkaria zen; postu horretatik, Ibarbiak nekazaritza lurraldeak kolonizatze, populatzeko, probintziako legean oinarrituta euskaldunentzat Argentinan sarbidea irekitzea pentsatu zuen,

holandarrak egiten ari zirena ikustean bururatu zitzaidan. Argentinan asko dira euskaldunak eta euskaldunen ondorengoak, eta oso egitasmo ona iruditu zitzaidan. Gainera, Buenos Airesko erakunderik garrantzitsuenek beren laguntza oso eskaini zidaten: Laurak Batekoek, Euskal Etxekoek, eta, batez ere, Sociedad Rural Argentina-koek. Azken honetako presidentea Adolfo Bioy biarnotarra zen, oso gizon euskaltzalea, bere koinatu Miguel Casares bezala, Kolonizazio Institutuko nire ikuskatzailea⁶.

- etxeko presidentea), Ramón Mendizabal (Gure Echea elkar-
teko presidentea), Nemesio de Olariaga (Confederación de
Asociaciones Rurales de la provincia de Buenos Aires y de
la Pampa erakunde presidentea), Fermín Ortiz Basualdo,
Martín Pereyra Iraola, Saturnino Zemborain, Isaac Ayerza,
Mariano Olaciregui, José Digorrage, Enrique Amadeo Arta-
yeta, Aurelio Payssè, Florentino Ayestarán, Raúl M. Puchuri,
Bautista Elola, Félix Loizaga, Vicente Colmegna, Pedro Imaz,
Raúl Chilbroste, Luis de Ibarra, Diego Joaquín Ibarbia (Bue-
nos Aires probintziako Instituto de Colonización erakunde
publikoaren idazkaria), Pedro Goicoechea (Santísimo Sacra-
mento elizako bikarioa).
5. Ramon Aldasoren Miguel José Garmendiari 1940ko otsai-
laren 24ko gutunean. Abertzaletasunaren Agiritegia,
GE-119-3.
 6. “Guk sortu genuen Argentinako Euskal Inmigratioaren
Aldeko Batzordea”, Gonzalo Auzak Diego Joaquín Ibarbiari
Euskonews-en egindako elkarrizketa, [http://www.eusko-
news.com/0205zbk/elkar20501](http://www.eusko-
news.com/0205zbk/elkar20501)


Comité pro Inmigración Vasca eta Liga de Amigos de los Vascos elkarteek bilera egin zuten 1939ko azaroaren hondarrean Argentinako presidentea zen Roberto M. Ortiz jaunarekin. Unión Cívica Radical alderdikoa, Argentinako presidentek aita eta ama euskal herritarrek zituen. Euskal immigranteen semea zen aita eta amaren aldetik. Aita, Fermin Ortiz Saracho, Zallakoa zuen eta ama, Josefa Lizardi Semper, Igantzikoa. Presidentearen emaztea, Maria Luisa Iribarne, euskal jatorrikoa izateaz gainera euskaltzalea zen. Argentinako lehen agintariarekin izan zuten bileran euskal immigrazioa ahalbideratzeko ideia gauzatzea eskatu zioten.

Bilera haren emaitzak bi hilabete pasatu baino lehen gauzatu ziren. Roberto M. Ortiz presidentearen eta honen gaixotasuna zela medio aginte exekutiboa hartzen ari zen Ramon Castillo presidenteordearen aginduz, Nekazaritzako ministerioak 1940ko urtarrilaren 20ko Dekretua onartu zuen non Argentinan euskal herritarren sarbidea legeztatu zuen. Ortiz Argentinako presidentek Nekazaritza ministerioari agindu zion baimentzeko:

el ingreso al país de inmigrantes vascos, residentes en España o Francia, con la documentación que posean y bajo la garantía moral y material en cada caso, del Comité Pro-Inmigración Vasca, o la que en su defecto puedan suministrar los funcionarios consulares respectivos, sobre los antecedentes de buena conducta y aptitudes físicas y morales de las personas en cuyo favor interceda el citado Comité.

Gobernar es poblar, utzi zuen idatzita Argentinako konstituzioaren aita ponte den Juan Bautista Alberdik. Baina, hitz horiek XIX. mendekoak ziren eta 1940rako hori aspaldi ahaztua zen. Argentinak lehen mundu gerraren ondoren atek itxi zizkion immigrazioari, bertan sartu ahal izateko muga zorrotzak ezarri. la debekatzera iritsi ziren, bereziki errefuxiatuei. Politika horren araberrako salbuespena izateaz gainera, Eusko Jaurilaritzaren delegazioaren eraginez euskal herritarrek lortu zutena garrantzi itzelekoa gertatu zen, unea eta testuingurua kontuan izanda.

Euzko Deyak azala osoa eskainiz argitaratu zuen Dekretua, onartu zen egun berean, Argentinako Agintaritza Aldizkarian argitaratu baino bi aste lehenago.



Decreto de 20 de enero de 1940 [Boletín Oficial de 12 de febrero 1940]

Buenos Aires, enero 20 de 1940

53.448-Expte 625/1940 Visto las gestiones iniciadas por el Comité Pro-Inmigración Vasca, a fin de que se permita el ingreso al país de una cantidad de familias vascas residentes en España o Francia y

CONSIDERANDO

Que los propósitos que persigue el Comité Pro-Inmigración Vasca son los de mantener y acrecentar esa corriente de inmigración que desde la constitución del país ha representado un vigoroso aporte a la población y al progreso de la Nación, por las cualidades de laboriosidad y adaptación a nuestro medio económico-social;

Que estas finalidades pueden alcanzarse dentro de las disposiciones que reglan la entrada de inmigrantes al país adoptando todas aquellas medidas que permitan asegurar los extremos exigidos sobre buenos antecedentes y aptitudes de las personas que entren a la República;



Josefina Irujo Olla eta bere alaben igarobidea Argentinako eta Frantziako migrazio tramiteekin.

Por ello,

El Presidente de la Nación Argentina

DECRETA

Artículo 1º. El Ministerio de Agricultura, permitirá el ingreso al país de inmigrantes vascos residentes en España o Francia, con la documentación que posean y bajo la garantía moral y material para cada caso, del Comité Pro-Inmigración Vasca, o la que en su defecto puedan suministrar los funcionarios consulares respectivos, sobre los antecedentes de buena conducta y aptitudes físicas y morales de las personas en cuya favor interceda el citado Comité.

Presidente Ortiz Ministro de Agricultura José Padilla

Euzko Deyak egindakoa ez zen harritzekoa, dekretu hura sinets ezinezko amets gozoa zen Ramon Aldasorok Miguel Jose Garmendiari idatziz moduan, *nuestras mejores ilusiones no podían aspirar al éxito que representa la promulgación del Decreto*⁷. Eta hori 1940ko urtarrilean gertatu

7. Ramon Aldasorok Miguel Jose Garmendiari 1940ko otsailaren 24an idatzitako gutunetik. Abertzaletasun Agiritegia, GE-119-3.

zen, bigarren mundu gerrak euskal erbesteratuak amildegiairen ertzean jarri zituen momentuan. Frantzian geratzea zaila –edo ezinezkoa– zuten eta han bizi ziren asko ezin ziren Francoren esku zen Euskadira itzuli. Mundu gerrak, gainera, 1939ko lehen bederatzi hilabeteetan Ameriketara bideratu ziren errefuxiatu errepublikarren bidaiak antolatutak eten egin zituen. Erbesteratu haiek paperik gabe geratu ziren. Euskal herritarrek, gaitz erdi, Eusko Jaurlaritzak ateratako Igarobideak, nortasun agiriak zituzten, baina hauen balioa mugatua zen. Nahiz horrela izan, ezer ez izatea baino askoz hobea zen.

Igarobideetan zigilatutako baimenekin bidaiatzen zuten erbesteratuak ziren euskal herritarrek. Dekretuko irizpideen arabera, irten aurretik lortu behar zuten Argentinako kontsulatueta Plata ibaiako herrialdean sartzeko baimena, Comité pro Inmigración elkarteak tramitatzen zuen eta ondoren eskatzaileak jasotzen zuen sarrera baimena. Gauzak asko okertu ziren 1940ko ekainean naziek Frantzia garaitu zutenean. Argentinako kontsulatuak zailagoa zuten tramitazioa, beraz Pro Inmigración Vasca komiteak beste dekretu bat lortu zuen Argentinako presidentziatik, lehen haren interpretazio hedatzailea egiteko. Bigarren

dekretua⁸ Ramon Castillo, Argentinako presidente-ordeak izenpetua funtzioetako presidente gisa, Roberto M. Ortiz presidentea handik hila-bete gutxitara hilko zuen diabetea tratatzen ari zelako.

zezaketen, Comité Pro-Immigración Vasca ren parte hartzearekin. Dekretuak salbuespen bakarra ezarri zuen: Argentinako portuetan desertatutako marinelek, hauek ezin izango zuten egoera erregularizatu.

PROPIEDAD INTELECTUAL
REGISTRO NACIONAL DE
N.º 84589

Euzko Deya

LA VOZ DE LOS VASCOS EN AMERICA

FRANQUICO PAGADO
TARIFA REDUCIDA
CONVENIO 1914

Año 2 - Bigarren urtea
Buenos Aires, 29 de Julio de 1940
Núm. 44 - 44 garren zenbakia

Buenos Aires, 18 de Julio de 1940.

Visto este expediente (5295/1940); atento lo solicitado a foja 1 por el Comité Pro-Immigración Vasca y lo informado por la Dirección de Inmigración,

El Vicepresidente de la Nación Argentina en ejercicio del Poder Ejecutivo,

DECRETA:

Artículo 1o. — Ampliase el Decreto número 53.418 de fecha 20 de Enero de 1940 que autorizó al Departamento de Agricultura a permitir el ingreso al país de inmigrantes vascos residentes en España o en Francia, en la siguiente forma:

a) Comprender a los vascos sin distinción de origen y de lugar de residencia en los beneficios que acuerda ese decreto.

b) El Comité Pro Inmigración Vasca podrá intervenir en la regularización de la situación de pasajeros vascos que ya se encuentran en el País, exceptuando el caso de los tripulantes de barcos que hubieren desertado.

Art. 2o. — Comuníquese, publíquese, dese al Registro Nacional y vuelva a la Dirección de Inmigración a sus efectos.

(Fdo.): CASTILLO - C. Massini Ezcurrea.

DECRETO No. 65.384.

Forman el Comité de Inmigración Vasca: Presidente, Ing. José Urbano Aguirre. Vocales: R. P. Pedro Goicoechea, s. s. s.; Ing. Juan Zepeda, Dr. Elijido R. Larrea, Sr. Ramón Mendizábal, Dr. Adolfo Bion, Sr. Manuel de Oñativia, Ing. Saturnino Zambora, Sr. Iván L. Ayerza, Ing. Diego Joaquín Ibarra, Sr. Fermín Ortiz Basualdo.

Los nombres de estos ilustres argentinos, hijos de nuestra estirpe están grabados en el corazón de todos los vascos.

El Ministro de Relaciones Exteriores promete concebir todo el apoyo que pueda otorgar la Argentina a los refugiados vascos.

El Ministro de Relaciones Exteriores desea cumplir con el compromiso que el Gobierno Argentino contrae al aceptar el ingreso al país de inmigrantes vascos residentes en España o en Francia, en la siguiente forma:

La adversidad implacable, viene azotando a miles de compatriotas vascos con los mil crecidos sufrimientos desde hace cuatro años a esta parte. Finalmente, padecieron la guerra civil española. Después del exilio en Francia y en diferentes zonas de España, durante su estancia en el extranjero, la invasión de estos países ha vuelto a desplazarlos de los lugares en que residían y a torturarlos con las amarguras de las más graves privaciones. Miles de vascos se encuentran hoy en Francia y en Bélgica, perdidos la comunicación con el exterior, con la ilusión de hallar en tierras de paz los respaldos y el bienestar a los que por su especialidad tienen legítimo derecho.

Como pueden apreciar nuestros lectores, los vascos que estamos en la Argentina, en permanente sucesión de tanto dolor y de tan intensa tristeza.

En las complejidades y dificultades que se han planteado por medio del Comité Pro Inmigración Vasca, se ha venido recurriendo a los procedimientos Argentinos, para que

El Ministro de Relaciones Exteriores desea cumplir con el compromiso que el Gobierno Argentino contrae al aceptar el ingreso al país de inmigrantes vascos residentes en España o en Francia, en la siguiente forma:

La adversidad implacable, viene azotando a miles de compatriotas vascos con los mil crecidos sufrimientos desde hace cuatro años a esta parte. Finalmente, padecieron la guerra civil española. Después del exilio en Francia y en diferentes zonas de España, durante su estancia en el extranjero, la invasión de estos países ha vuelto a desplazarlos de los lugares en que residían y a torturarlos con las amarguras de las más graves privaciones. Miles de vascos se encuentran hoy en Francia y en Bélgica, perdidos la comunicación con el exterior, con la ilusión de hallar en tierras de paz los respaldos y el bienestar a los que por su especialidad tienen legítimo derecho.

Como pueden apreciar nuestros lectores, los vascos que estamos en la Argentina, en permanente sucesión de tanto dolor y de tan intensa tristeza.

En las complejidades y dificultades que se han planteado por medio del Comité Pro Inmigración Vasca, se ha venido recurriendo a los procedimientos Argentinos, para que

PROPIEDAD INTELECTUAL
REGISTRO NACIONAL DE
N.º 84589

Euzko Deya

LA VOZ DE LOS VASCOS EN AMERICA

FRANQUICO PAGADO
TARIFA REDUCIDA
CONVENIO 1914

Año 3 - Irugarren urtea
Buenos Aires, 20 de Enero de 1941
Núm. 62 - 62 garren zenbakia

AL CUMPLIRSE EL ANIVERSARIO DEL PRIMER DECRETO SOBRE INMIGRACION VASCA

El Decreto de 29 de Enero de 1940 contiene una solenne declaración oficial de singular efecto, con que el Pueblo Argentino designa gratitud de todos nuestros compatriotas, repitiendo las palabras congradadas en el ritual de las manifestaciones patrióticas argentinas.

Decreto del Veinte de Enero de 1940
(Hoja Oficial del 22 de febrero)

Buenos Aires, enero 20 de 1940.
53448-Rp. 6537940

Visto las peticiones recibidas por el Comité Pro Inmigración Vasca, a fin de que se permita el ingreso al país de una cantidad de familias vascas residentes en España o en Francia, y

CONSIDERANDO:

Que las peticiones que promueve el Comité Pro Inmigración Vasca son las de mantener y acrecentar una corriente de inmigración que tienda la consolidación del país la representación un vigoroso aporte a la población y al progreso de la Nación, por los cualidades de laboriosidad y adaptación a nuestro medio económico-social; que estas familias pueden alojarse dentro de las disposiciones que regulan la entrada de inmigrantes al país adoptando todas aquellas medidas que permitan mejorar las extrínsecas exigidas sobre buenos antecedentes y aptitud de las personas que entran en la República;

Que ello.

El Presidente de la Nación Argentina

DECRETA:

Artículo 1o. — El Ministerio de Agricultura, permitirá el ingreso al país de inmigrantes vascos, residentes en España o en Francia, con la documentación que se indica en el artículo 1o del Decreto 53.418 de fecha 20 de enero de 1940, en la siguiente forma:

a) Comprender a los vascos sin distinción de origen y de lugar de residencia en los beneficios que acuerda ese decreto.

b) El Comité Pro Inmigración Vasca podrá intervenir en la regularización de la situación de pasajeros vascos que ya se encuentran en el país, exceptuando el caso de los tripulantes de barcos que hubieren desertado.

Art. 2o. — Comuníquese, publíquese, dese al Registro Nacional y vuelva a la Dirección de Inmigración a sus efectos.

CASTILLO
C. Massini Ezcurrea.

Al Gran Pueblo Argentino ¡Salud!

ORTE
José Padilla

1940ko uztailaren 18an onartutako dekretuak hedatu eta erraztu egiten zuten euskal herritarren sarbidea. Munduko edozein lekutatik aterata ere, Argentinako sarrera baimentzen zien *a los vascos sin distinción de origen y de lugar de residencia*, nahiz paperik ez izan. Comité Pro-Immigración elkarteari Argentinara iritsitako euskaldunen erregularizarako aukera eskaintzen zion, *intervenir en la regularización de la situación de los pasajeros vascos que ya se encuentran en el País*. Hau da, nahiz dokumentaziorik gabe eta sarrera baimenik gabe Argentinara iritsi, behin Platako herrialdean beraien egoera normalizatu

Hego Euskal Herria Francoren agindupean zen garaietan eta Europako kontinentea naziek kontrolatzen zuten denboran, *Casablanca* filmaren hasieran narratzaileak dioten moduan: *bigarren mundu gerra hasi ondoren, European begi askok Ameriketako askatasunean zuten itxaropena edo desesperantza jarria*. Une horretan, Comité Pro Inmigración elkartearen babesarekin Argentinara sarbidea izatea, nahiz dokumentaziorik ez izan, triunfo politiko itzela izan zen. Are gehiago, hori euskal herritartasunaren aitortza zelako, noiz eta euskal erakundeak erbestean ziren garaian. Ulertzekoa da, beraz, Agirre Lehendakariak dekretua eskertuz Argentinako gobernuari idatzi zion telegrama: *con intensa emoción entranse vascos decreto facultando libre entrada noble Nación Argentina*.

8. Decreto número 65.384 de 18 de julio de 1940, Poder Ejecutivo de la República Argentina.

La Aplicación del Decreto del 20 de Enero de 1940 Sobre Inmigración Vasca

No se muestra intención por parte de la gran mayoría de la inmigración vasca, en el momento de su llegada a Buenos Aires, de solicitar la nacionalización. En consecuencia, la gran mayoría de la población vasca en Buenos Aires, al momento de su llegada, se encontraba en un estado de "inmigración temporal".

El presente artículo tiene por objeto analizar la aplicación del decreto del 20 de Enero de 1940 sobre inmigración vasca, y la situación de la población vasca en Buenos Aires, en el momento de su llegada.

El presente artículo tiene por objeto analizar la aplicación del decreto del 20 de Enero de 1940 sobre inmigración vasca, y la situación de la población vasca en Buenos Aires, en el momento de su llegada.



LA VOZ DE LOS VASCOS EN AMERICA


Buenos Aires, 10 de Mayo de 1940

NOMINA DE EXPEDIENTES

- Los expedientes que se encuentran en trámite en la Presidencia de la Nación, para dar cumplimiento al decreto del 20 de Enero de 1940, son los siguientes:
- Agirre Lehendakariak, oraindik, 1956an Parisen bildutako I. Euskal Mundu Biltzarrearen aurrean egindako hogeitazero urteko deskargu txostenean deklaratutako gogoan izan zituzten eta hori ahalbidetu zuten gutzietan eskertu zuten, bereziki lau urte lehenago hil zen Aldasoro sailburuari:
 - Agirre Lehendakariak, oraindik, 1956an Parisen bildutako I. Euskal Mundu Biltzarrearen aurrean egindako hogeitazero urteko deskargu txostenean deklaratutako gogoan izan zituzten eta hori ahalbidetu zuten gutzietan eskertu zuten, bereziki lau urte lehenago hil zen Aldasoro sailburuari:
 - Agirre Lehendakariak, oraindik, 1956an Parisen bildutako I. Euskal Mundu Biltzarrearen aurrean egindako hogeitazero urteko deskargu txostenean deklaratutako gogoan izan zituzten eta hori ahalbidetu zuten gutzietan eskertu zuten, bereziki lau urte lehenago hil zen Aldasoro sailburuari:

En la foto a la izquierda: Bepi Aguirre, Presidente Oritz, Zubizarain, Larrea y Ibarra en la visita realizada a la Presidencia, para dar las gracias por el decreto de inmigración vasca.

EL MATRIMONIO ALDASORO CON SUS HIJAS



El señor Ramón María de Aldasoro y su esposa Pilar Guerricabelta al recibir a sus hijas en el muelle de Buenos Aires. — (Foto cedida por el diario "La Razón").

El pasado jueves, día 15, festividad de la Virgen de Bergida a las 8 de la mañana atracó en la dársena Norte el trasatlántico inglés Highland Brigade en el que llegaron con otros pasajeros la señora Ramona Ceneruzabola Maguogicochea, acompañada de las niñas Mari del Carmen y Matxalen Aldasoro Guerricabelta y el doctor Alfredo Martínez Rabal, especialista en investigaciones psiquiátricas, que durante la guerra civil fue teniente de Carabineros, y poseía los títulos de médico, farmacéutico, abogado y maestro. Todos ellos procedentes de Escocia en donde se encontraban desde hace dos años.

Sallaron a esperarles al muelle a estos viajeros los padres de las niñas, María del Carmen y Matxalen Aldasoro, numerosas representaciones de la colectividad vasca, entre los que recordamos, a las señoras Burundarona, Jesús de Zabala, Marcelino de Jauregui, señoras de del Horno, Jauregui, Bilbao de García, Larreategui de Ryan, y señoras de Amorrotte, Latiztegui, Dámaso de Arca, Velasco Kortazar, y otras más cuyos nombres sentimos no recordar.

Numerosos parientes del señor Aldasoro se encontraban también en el muelle, entre los que figuraban muchos primos de las niñas, la señora de Rovada, el señor José María Aldasoro, y Da. Manuela Bengoetxea de Briarte, que a pesar de su ociosidad y ochenta años estuvo desde primera hora en el muelle. También acompañaron a los señores de Aldasoro, Da. Luisa Alvarez de Moreno y su esposo el huarete irratidista y Jefe de la Capital, Doctor Arturo Moreno. Las niñas de Aldasoro recibieron infinitas de obsequios, y hubo escenas de conmovedora emoción.

Los viajeros relataron pequeñas incidencias del viaje y nos expresaron la gran emoción recibida a su llegada a Montevideo, al verse libres de los riesgos que les amenazaban y de encontrarse con los brazos amigos y patrióticos, que les dedicaron en la capital del Uruguay infinitas de atenciones, obligándonos a bajar del barco para alojarnos en el acreditado Hotel "El Centro querido amigo" de nuestro querido amigo el señor José D. de Urtiaga y recibiendo el testigo afectuoso de amigos y parientes entre los que recordamos a las señoras Cutasola, Otegui

LLEGARON DE ESCOCIA



Ramona Ceneruzabola Maguogicochea y las niñas Mari Carmen y Matxalen Aldasoro Guerricabelta, al desembarcar en la Dársena Norte. — (Fotografía cedida por el diario "Crítica").

Vallana, Inguero Garmondia, D. Tomás Mugica y su familia y por la tarde fueron invitados a pasear por la ciudad por estos amigos y los señores de Muzeta Elizaga, parientes de las niñas de Aldasoro.

Euzko DEYA celebra cordialmente el feliz arribo de estos pasajeros.

Ekarririk auzo guziti!

EL SEÑOR JOSÉ ANTONIO URQUIAGA

En el mismo barco, llegó el joven estudiante chileno José Antonio Urquiza Luzar, que se encuentra en Londres desde hace dos años, estudiando la carrera comercial y que reclamado por sus padres, al agudizarse la guerra europea, va de paso para su país.

Los diarios publicaron amplias informaciones de las declaraciones formuladas por el joven Urquiza, sobre la vida en Inglaterra y las condiciones de la travesía.

El señor Urquiza es hijo del conocido comerciante chileno señor Pedro Urquiza, natural de Cobero y de la noble etxekoan, doña Inés Luzar de Oñate. Al visitarnos en Euzko DEYA, nos dijo que estaba muy reconocido a las atenciones que le dedicaron nuestros compatriotas en Montevideo y del afecto con que le han distinguido todos los vascos con quienes se encontró en esta capital. Nos informó que estaba enterado de la vida de nuestra colectividad en estos países, y por los Euzko DEYA que se reciben en Londres, muchas de cuyos ejemplares leyó durante su permanencia en la india, cada ciudad.

Agirre Lehendakariak, oraindik, 1956an Parisen bildutako I. Euskal Mundu Biltzarrearen aurrean egindako hogeitazero urteko deskargu txostenean deklaratutako gogoan izan zituzten eta hori ahalbidetu zuten gutzietan eskertu zuten, bereziki lau urte lehenago hil zen Aldasoro sailburuari:

Gure Ramon Aldasoro ahaztezina geratzen zaigu, bihotz oneko gizona, Argentinan gure ordezkari izandakoa. Haren kudeaketa-lan apartari esker eta haren arraitasun eta izen onak lagunduta lortu genuen Argentinako Ortiz lehendakariaren dekretua, Euskadiko biztanleei herrialde horretara edozein agirirekin sartzeko gaitasuna eman ziguna. Hura bai lan bikaina! Hari esker, euskotar askok nahikoa izan zuten Eusko Jaurilaritzak ematen zuten agiria Argentinan sartu ahal izateko. Gizon ahaztezina izan zen Aldasoro gure Jaurilaritzan. Gizon arrai eta prestua, xede zintzo eta jatorren alde lan egiteko gertu beti⁹.

9. Agirre Lehendakariak, Eusko Jaurilaritzaren hogeitazero urteko kudeaketa (1936-1956) txostena, I Euskal Mundu Biltzarrean aurkeztua. 201. orrialdean, Eusko Legebiltzarrak 2013an argitaratutako liburuan.

EUSKALDUNEN ETXEA

Bar y Restaurant

AUZMENDI y PEÑA

Buena Cocina — Precios Módicos

LIMA 1753 — U. T. 23-1787 — Buenos Aires

Frente a la estación Constitución

Roberto M. Ortiz Argentinako presidentearen agindupean eta honek gaixotasunagatik kargua utzi ondoren kargua hartu zuen Ramón S. Castillo presidentzia garaian, bi dekretu hauei esker 3.000 euskal herritar sartu ahal izan ziren Argentinan. Gisa honetan, 1940. urtean Argentina izan zen munduan euskal erbesterratu gehien hartu

PROCEDENTES DE MARSELLA HAN LLEGADO A BUENOS AIRES LOS DOCTORES MIGUEL JOSE GARMENDIA Y ANDRES IRUJO

Horas antes de cerrar esta edición hemos tenido la satisfacción de abrazar en EUZKO DEYA a nuestros entrañables amigos los abogados de Iruña señores Garmendia e Irujo, este último hermano del ministro doctor Manuel Irujo, que procedentes del Brasil llegaron ayer por el ferrocarril a la estación Lavaca.

De los miles de refugiados concentrados en Marsella, después de la derrota de Francia, estos dos compatriotas nuestros son los únicos que han conseguido salir durante estos tres últimos meses, y después de una azarosa

Itrosia por Orán, Castañeta, Lisboa y Río de Janeiro llegaron por el Paso de los Libres a la Argentina.

Pueden figurarse nuestros lectores la emoción con que los hemos recibido y la interesante información que nos han trasladado de nuestros compatriotas en Francia.

UN BUEN RESTAURANT Y PARRILLA
EL SOL
BENIGNO TXAOS AMIANO
SERVICIO ESMERADO
PRECIOS ECONOMICOS
ENTRE RIOS 481 EL TEL. 22-6758

Ha llegado el Padre Altzo



El ilustre Capuchino Padre Miguel de Altzo (Ancieto de Olano) tan conocido en el País Vasco, hermano del Obispo Misionero de Guam (Islas Marianas), que después de un azaroso viaje llegó a Buenos Aires, el pasado viernes 4 de octubre y al que tuvimos el honor y la satisfacción de saludar en EUZKO DEYA. El Padre Altzo quedará incorporado al Convento de la Orden en Córdoba.

zuen herria. Dekretua indarrean izan zen Argentinako armadak 1943ko ekainaren 4an estatu kolpea eman zuen arte. Militarren diktadurak eta ondoren, Juan Domingo Perón koronelaren presidentziak aliantzak eta laguntzak Francoren aldera aldatu zituzten. Besteak beste, María Eva Duarte Iburguren Etchegoien Nuñez, Evita Perónen jatorri berekoei bizkar emanda.

Errenteriako Mendiola jatetxeko argazkian azaltzen zaigun Omega kafetera fabrikako behargin hura aipatutako dekretuei esker Argentinara bizitzera joan zen euskal herritar horietako bat dugu. Oiartzun ibaiaren arrotik ur gezako itsasoa den Plata ibiak bustitako lurraldera joan zen. Gure amak ahaztua du bere izena, agian zuk irakurle eza-gutuko duzu.

Fábrica de Máquinas Cafeteras

OMEGA

RENTERIA ≡ **(Guipúzcoa)**

La primitiva y mejor CAFETERA EXPRESS que aumenta los méritos del café

Concesionarios exclusivos para la venta en España:

Productos “COPELAND”

Peligros, 20 **MADRID**